

# Berriketan

Debako herri aldizkaria - 191. alea - 2014ko abendua




Irudien bidez esan dugu aurten:  
Deban euskarak 365 egun





# ZURE ENTZUMENA ZAITZEN



OSTOLAZA, 7 • 20820 DEBA  
TEL. 943 19 21 92

**MULTIÓPTICAS  
Uzuri**

RPS: 183/12

## Mikel

- Iturgintza
- Berogintza
- Gasa
- Altzariak
- Osagarriak

Mobila: 699 975 206  
Tel. faxa: 943 191 774  
Hondartza, 10 - behea  
**20820 DEBA (Gipuzkoa)**  
mikeliturgintza@euskalnet.net  
www.mikeliturgintza.com

# A D

### ASESORIA DEBA C.B.

JURIDIKOA - LABORALA - FISKALA - ASEGURU KONTABLEA - HIGIEZINAK

Miren Lore: 669 895 617  
Edurne: 669 895 619

HONDARTZA, 2 - BEHEA  
20820 DEBA (GIPUZKOA)

Tel.: 943 192 127  
Fax: 943 192 482  
ase.deba@teleline.es

## atari

etxebizitza zerbitzu integrala

SALMENTA, ALOKAIURUAK, ABOKATUA  
Lersundi 1, behea 20820 - DEBA  
Tel: 943192263  
www.atarideba.com

## Lizaso Autozerbitzua

Lersundi kalea, 31  
Tlfnoa: 943 19 27 39



Hondartza ondoan  
Urte guztian zabalik

Nafarroa Plaza • Tlfnoa.: 943 192 576  
20820 DEBA

## oskarbi



Pintxoak  
Ogitarteak  
Plater Konbinatuak

Lersundi kalea, 9  
Tel. 943 029 468 - 618 664 014  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

## ALBIZU

HARATEGIA

Lersundi kalea, 27 - 943 19 14 47 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)



Ostolaza, 5  
DEBA  
Tel.: 943 191 197

# IZENBE

- Gosariak
- Txikiteoa
- Pintxoak



Itur kalea • Tlfnoa.: 943 192 473 • 20820 DEBA



Ostolaza Kalea 25.  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 191 818



## ZALBURDI

Plaza Arakistain - DEBA Tel.: 943 19 20 03

English Academy  
**NORTH  
STREET  
ENGLISH**



Telf. 675 714 031 - Ifar kale, 15 - Deba

## Bordatxo JATETXEA

Zesterokua Plaza  
Tel.: 943 029 376  
Bazkariak: 13:00 / 16:00  
Añariak: 20:00 / 23:00

BEREZITASUNA PARRILAN:

- Asteburuko menuak - Parrilan menuak - Mokadu eta pintxoak
- Plater konbinatuak - Etxera eramateko jakiak - Ospakizunak

Ifar kalea, 12 behea  
20820 Deba  
Telefonoa: 943 19 13 83  
Aldizkariaren e-maila:  
[berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com)  
Elkartearen e-maila:  
[koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com)

**Argitaratzailea:**  
Zuhatza Euskara Elkartea  
**Erredakzio taldea eta kolaboratzaileak:**  
Nagore Dorronsoro, Xabier Laka, Ina Oiartzabal, Koldo Aperribai, Lukax Dorronsoro, Izaro Aulestiarte, Ibon Urkia, Maite Rodriguez, Gilen Garcia, Eider Zulaika, Idoia Gereñu, Goizane Aizpurua, Haika Aizpurua, Nekane Goikoetxea, Mattin Urbietta, Mikel Aizpurua, Debako Gazte Asanblada, Mendata BHI-ko prentsa tailerra.

**Koordinatzailea:**  
Izaro Aulestiarte  
**Azaleko irudia:**  
Erredakzio taldea  
**Publizitatea:**

Joseba Escudero eta Koldo Aperribai  
Tlfnoa.: 943 19 13 83  
**Logotipoaren diseinua:**  
Iñaki Elosua  
**Maketazioa:**  
Leire Rubio  
**Inprimategia:**  
Euskalinpri  
**Tirada:**  
1.400 ale  
**Lege gordailua:**  
SS-246-2009  
**ISSN** 2171-7656

**OHARRA:**

*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta GUTUNAK ataletan adierazitakoen erantzukizunik. Eskutitz guztiek ondo identifikatuta egon beharko dute argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia, nahiz eta gero izen-abizenak soilik argitaratu. Idatziak gehienez 25 lerro izan beharko ditu eta [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) helbidera bidali beharko dira, hilabeteko azken astelehena baino lehen.

**ARGITARATZAILEA**



**LAGUNTZAILEAK**



# aurkibidea

05-07

**Kolaborazioak:** Idoia Gereñu  
("Five days to dance"),  
Debako Gazte Asanblada  
("Helmugarik gabeko bidai")...

08-09

**IRUDITAN**  
Euskararen Nazioarteko  
Egunari erreposoa, iruditan



Ander Salegi

10

**ALBISTEA**

**Itziarko Auzo Udala** eratzearen alde agertu da iritzia ematera deituta zeudenen gehiengoa



15

**ALBISTEAK**

"Aitaren eskutik, egurraren orpotik" erakusketa, Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketako irabazleak...



16-17

**LABURRAK**

Aldarripaken ozena azaroaren 25aren bueltan, Emakumeen pala txapelketa Sonia Fernándezek eta Ane Bastidak irabazi dute, Animadeba...



18

**ZERBITZUAK**





*Berriketan*-ek ez du bere gain hartzen GUTUNAK atalean adierazitako erantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira argitaratu ahal izateko. Ez ahaztu datu hauek jartzea: izen-abizenak, NAN eta telefono zenbakia. Bidali helbide hauetara: [berriketan@zuhatza.com](mailto:berriketan@zuhatza.com) edo [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com).

## Zatoz Kolore Anitz Egunera!!

Kaixo, kaixo!

Gogoratzen iazko udaberri partean zein ongi pasa genuen guraso eta haurrok elkarrekin jolasean? Zer iruditzen urtea amaitu baino lehen guztiok elkarrekin herriari berriz ere kutsu berezi hori emango bagenio? Anima zaitetz, hortaz, abenduaren 26an Kolore Anitz Egunean parte hartzera!!

Goizean, haur eta gurasoentzako Oka jolasa burutuko dugu herri guztian zehar -jolasean parte hartzeko, eskolara igo ditugu izen-emate orriak-.

Arratsaldean, berriz, Debako bertsolari gazteekin batera, bertso-poteo musikatua egingo dugu kaleetan zehar.

Egun polita pasako dugu guztiok elkarrekin, euskaraz hitz egin eta gozatuz betiere. Animatu eta zatoz zu ere! Ez dezagun ahaztu zein polita den gure hurrekin batera jolastea!

Eskertuko genuke Kolore Anitz aisialdi taldearen kamiseta duten haur guztiok egun horretan soinean jantzita eramatea. Bestelako informaziorik beharko bazenu, jar zaitetz gurekin harremanetan: [koloreanitz@gmail.com](mailto:koloreanitz@gmail.com) helbidean edo 688 606 771 telefono zenbakian (17:00etatik aurrera).

Mila esker eta laster arte!! Kolore Anitzek eguberri ona opa dizue guzti-guztioi!!

*Kolore Anitz Aisialdi Taldea*

## Euskal Herrira orain!

Bilbotik mundura hedatuko den mezuak zure ahotsa ere behar du! **Datorren urtarrilaren 10ean, Bilbon, arratsaldeko 17.30ean** bi puntu ezberdinetatik abiatuko gara (udaletxetik eta La Casillatik) Zabalburu plazan elkartzeko. Mobilizazio jendetsu eta parte-hartzailea izango da, jendartearen aniztasunean oinarrituri-



SARE

koa, non pertsonok izango garen protagonista aktiboak. Mezu garbi bat zabaltzeko mobilizazioa izango da: **dispertsioarekin amaituko dugu!!!**

Autobusean joan ahal izateko eman izena Arkatza, Maxi edo Gaztetxean.

*Debako Sare*

**ISABEL FRUTADENDA**

Sokagin Kalea, 2 behean . 20820 DEBA  
943 029 186

**JAZKUNE**  
FRUTA PRODUKZIOA ETA ZERBITZUA  
1975etik zuekin!

**ARKATZA**  
Liburudenda

Tel.: Ostolaza, 3  
943 192 057  
20820 DEBA

*Calbeton*

JATETXEA

**Agustín Larrañaga Elorza**

Denboraldiko platerra  
arrain eta barazkitan

Hondartza kalea  
Tlfnoa.: 943 191 970  
20820 DEBA (Gipuzkoa)

**L.A.**

**LARRAMENDI ANAIK, S.L.**

- LIXATUAK
- BERNIZATUAK
- PARKET
- PARKET FLOTANTEAK

Tlfnoa.: 943 021 959  
Mobila: 670 411 786  
Tel.-Fax: 943 191 782

ARTZABAL AUZOA  
20820 DEBA (Gipuzkoa)


**sasoi**ko

ekodenda,  
dietetika,  
belardenda

ZERBITZUAK:

- \* Fisioterapia: teknarterapia (INDIVA)-drenaje linfatikoa -lesioak -...
- \* Gimnasia hipopresiboak
- \* Dietista
- \* Podologia

Lersandi, 14 943 19 24 42 sasoi@hotmail.com



# Idoia Gereñu

## “FIVE DAYS TO DANCE”

Europako beste herrialdeetan ere egin izan dira halako esperimentuak, oraingoan Donostiako ikastetxe batera heldu da proiektua. Ikasleak, klaseetatik aldendu eta dantza-antzerkira gerturatuko dira aste-betez, amaieran ikuslegoaren aurrean koreografia bat aurkeztuaz. Aste osoz ez dute ez matematikarik, ez historiarik ezta ingelesik ere ikasiko; eskola orduak beste ikasketa bati eskainiko dizkiete.

Irakasle eszeptikoenen artean, programazioko klase orduak galtzearen ideia aldrebesa dabil jiraka; zuzendaritzak erabakia hartu eta apustua egingo du, ordea.

Garrantzitsuak dira zientziak, liburuak eta letrak, hizkuntzak eta beste. Hori ez du inortxok ere zalantzan jartzen. Baina, ezinbestekoa behar luke norberak bere gorputza ezagutzea. Nola mugitzen garen, gure ibilerak zer adierazten duen, gure ahotsak zer esanahi duen besteengan... jakiteak. Ezinbestekoa behar luke gurekin bizi den gure gorputzaren bertuteak eta mugak norberak ezagutzea. Baina hori ez da errealitatean gertatzen. Eta proiektu honek hau guztia agerian uzten du. Honez gain, eguneroan eserita 6-8 ordu getan igarotzen dituzten liderrak, azkarrenak, alferrenak... ezagutzen ditugu. Aldiz, rol aldaketak miraririk gabeko lanketetan

gerta daitezke, dantza-antzerkia adibide. Hala, taldeek, kideek, euren beldur zein indarrek, baloreak kanporatu eta pertsona berriak eraikitzen dituzte. Ez da txantxa, errealitatea da.

Hau guztia jakinda, orain imajina ezazue zeuen burua halako proiekturen batean. Imajina zaitetz zure lantaldean, ikastaldean, gorputza askatzen, aurkeztzen zein balioesten. Ez zaitetz lotsatu, halakoetan lotsa beti uzten da ate kanpoan, zin dagizut! (Zure ondoak ere egoera berean daudela gogoratu, lagungarri bazaizu!).

Benetan diotsut, gogorra izan liteke kasuren batean, baina ziur naiz bost egun hauek gehiengo osoari eskainiko lioketen esperientziak bizi ikuspegi asko eta asko aldatuko lituzkeela. Ziur naiz askoren ilusio, gogo, bizipoz eta itxaropenak, denbora labur batean behintzat, bide zuzenerantz abiatuko lirakeela.

Orain gutxi izan nuen dokumentalaren berri herri aldizkari batean. Gogoia piztuta, ikusteko aukera izan dut gerora. Hala dakarkizuet neuk ere esku artera “Five days to dance”, zuek ere ikus eta goza dezazuen gomendatuz; probatzeko aukerarik ezean, ordubeteko zine saioan besterik ez bada ere, amets egin dezazuen.







## Helmugarik gabeko bidaia

Kondairak denboran zehar igaro diren gertakarien kontura sortzen dira, eta herri honek badu urteetan zehar gero eta ezagunagoa egin den bat. Kondairak dio, zehatza ez den epe batean neska eta mutil gazteek osatutako koadrila txiki batek Kalbeton zumardian zegoen etxe zaharkitu batean tren geltoki bat eraiki zuela.

Geltokia eraikitzeak helburu bat zeukan eta gazteak ziur zeuden gogor lan eginez helburu hori lortuko zutela. Beraien ideia oso erakargarria zen, mugarik gabeko bidaiak antolatzen zituzten eta bidaia hauetan parte hartzen zuten pertsona orok bere ametsak egi bihurtu zitzaizkien. Hori bai, honek, gauza on guztiek bezala, lan handia eskatzen zuen eta bidaiak urtean behin gauzatzen ziren.

Miresgarria zen gazte hauek lanean nola aritzen ziren ikustea, eta denbora pasa ahala gazte gehiago batzen joan ziren. Geltokiak zuen arrakasta ikusi eta gero, herrira gerturatzea erabaki zuten, ordura arte erabilitako geltokia baino handiagoa eta landuagoa izango zen beste bat zabaltzeko asmoarekin, eta hala izan zen.

Garai zailak ziren eta bertan elkartzen ziren gazteek behar asko ikusten zituzten herrian, batez ere gazteei zegozkienak; beraz, irtenbideak bilatzeari ekin zioten. Ideia ezberdinak partekatzen zituzten eta, denen artean erabakiak hartu eta gero, martxan jartzen zituzten. Ekintza ezberdinak antolatzen hasi ziren, herriko jendearekin harremanetan jarriz urtero irtetzen ziren tren horretara igotzera animatzeko. Hilabete oso zoriontsuak izan ziren, herriko jendearen erantzuna bikaina izan baitzen; baina, berri txar bat etortzear zegoen...

Gau arrunt batean, geltokiko sistema elektrikoak zirkuitu labur bat izan zuen eta honek sortutako suteak geltokia erabat kiskali zuen. Gertakizun desatsegin honek gazteak burumakur utzi zituen; baina, mutil eta neska hauek ez ziren besoz

gurutzatuta gelditzekoak, eta lan egiten jarraitzeko erakutsi zuten indarrak beste geltoki bat zabaltzera bideratu zituen.

Oraingo geltokia zabaltzeak denbora luzeko lana suposatzen zuen eta, bertan finko, betirako, geldituko zirela zin egin zuten.

Urteak pasa ahala geltokiak ametsi atea irekitzen jarraitu zuten eta honek gero eta gazte gehiago gerturatzea ekarri zuen. Urtero antolatzen ziren bidaietako batean, gaztetxo bihurri batek amets sinestezin bat planteatu zuen; tren geltokiak sortu zen unetik edukitako eta etorkizunean edukiko zuen bilakaera egi bihurtzea, hain zuzen ere.

Atsedetik hartu gabe, bere ibilbidean tinko mantendu zen eta gutxien espero genuen momentuan...

XIV urte luze igaro dira Debako gazte asanblada berpiztu zenetik, hamalau urte non

herri honek alternatiba ugari jaso dituen gazte talde batek sortutako lan dinamikari esker, eta hamalau urte luze eta gero, gazte hauek piztutako suak bizirik dirau.

Belaunaldiz belaunaldi, gazte asanblada aktibo mantentzea urte hauetan guztietan bertatik pasatako gazteok egindako lanetan emaitza da, eta helburu hau lortzeko herriak emandako babesa ezinbestekoa izan da. Horregatik eskertu nahi ditugu gazte asanbladak azken hamalau urte hauetan antolaturiko ekintza ezberdin guztiak burutzen lagundu eta haietan parte hartu duten pertsona guztiak.

Iragana islada, oraina lanabes, etorkizuna helburu; gaztetxea bizirik mantendu duen leloa izan da eta kide bakoitzak asanbladari eskainitako konpromiso eta ilusioak lelo hau egi bilakarazi du.

Haizeak dakarrena, berak darama; baina ez bizi izan duguna... Ez ezazue hurrengo trena galdu!!!

Lander Fernandez



## Egin zaitez bazkide ZUHATZAN...

Zuhatza Euskara Elkarteak 1997ko abenduan sortu zen, euskararen erabilera bultzatu eta Deba herri euskaldunago egiteko helburuarekin. Etorkizunari begira, lanean jarraitzeko gogoz dabil elkarteak eta horretarako indarrak batzen jarraitu nahi du, jakin badakielako euskararen eta euskal kulturaren normalizazioan urratsak eman nahi badira herritar guztien parte-hartzea ezinbestekoa izango dela.

Hori horrela izanik, bazkide kanpaina abiatu du elkarteak, "Zabaldu bidea euskarari" lelopean. Etxean, kalean, lanean, lagun artean, mendira joatean, ohean sartzean... Zabaldu diezaiozun bidea euskarari, noiznahi, nonahi, orain, hemen...

Egin zaitez bazkide Zuhatzan!!

**Deban euskeraz bagera!**



# Carpe Diem - Eguna aprobetxatu

## Carpe diem quam minimum credula postero

Juan Ignacio Aizpurua



Juan Ignacio Aizpurua



- 1.- Bizi bizitzaren une bakoitza azkena izango balitz bezala (Horacio; Odas, I, 11).
- 2.- Bizitzak negar egiteko arrazoiak ematen dizkizunean, erakutsi iezaiozu barre egiteko hamaika arrazoi daukazula (Ezezaguna).
- 3.- Ez ahaztu barre egiteaz, barrerik gabeko eguna galdutako eguna baita.
- 4.- Bizitza, beste plan batzuk egiten ahalegintzen ari zaren bitartean xahutzen dena da (John Lennon).
- 5.- Denak lur berarekin eginda gaude, baina, ez molde berarekin (esaera zahar mexikarra).
- 6.- Bitxia da, bizitza zenbat eta hutsago orduan eta pisutsuago (León Daudi).
- 7.- Lurrean bizitzea garestia da, baina, horrek urtero eguzkiaren inguruan bidaia bat dohainik egitea dakar (ezezaguna).
- 8.- Hitz egiten duzunean, zeure hitzak isiltasuna baino hobek izan daitezela (hinduen esaera).
- 9.- Ostadarra ikusi nahi baduzu, euria jasan beharko duzu.
- 10.- Benetako filosofia mundua ikusten berrikastea da (Merleau-Ponty).
- 11.- Zergatik akats zaharrak errepikatzen jarraitu, horrenbeste akats berri egonik? (Bertrand Russell).
- 12.- Berririo gaztea izango banintz akats berdinak errepikatuko nituzke, baina lehenago (Tallulah Bankhead).

- 13.- Denak amateurrek gara. Bizitzak, hain da laburra, ez du gehiagorako ematen (Charles Chaplin).
- 14.- Hain da motza bizitza eta hain zaila bizitzaren lanbidea, ezen ikasten hasten garenerako hil egin behar dugun (Ernesto Sábato).
- 15.- Bizitzatik festa batetik bezala irtetea da onena, egarririk gabe eta mozkortu gabe (Aristoteles).
- 16.- Bizitza entsegurik onartzen ez duen antzerki bat da. Horregatik, abestu, barre egin, negar egin eta zeure bizitzan une guztiak intentsitatez bizi itzazu, oihala jaitsi eta txalorik gabe amaitu baino lehen (Charles Chaplin).
- 17.- Bizitzaren jokoan inor ezin daiteke irabaziak jasoaz erretiratu (André Maurois).
- 18.- Eta nire azken bidaia iristen denean eta inoiz itzuliko ez den ontzia prest denean, ekipaia gutxirekin izango naiz bertan, ia biluzik, itsasoaren seme-alabak bezala (Antonio Machado).
- 19.- Gogoratu jaio zinen eguna, denak barrez ari ziren eta zu negarrez; hiltzen zaren unea modu berean bizi, denek negar egin dezatela eta zuk barre (esaera persiarra).
- 20.- Zeure bizitzaren egun guztiak bizi ditzazula!

**Aprobetxatu ezazu eguna!!**

*José Luis Albizu*

## edota oparitu beste norbaiti urtebeteko bazkidetza...

### ZEIN DIRA BAZKIDEAK?

**ZUHATZA Euskara Elkartearekin bat egin eta ekarpen ekonomikoa egiten dutenak.**

### ZERTAN ARITZEN DA ZUHATZA?

**Berriketan herri aldizkaria, Mintzalaguna, aisialdia euskaraz (Kolore Anitz), literatur lehiaketak, Euskal Jaia, Bertsogintza, Olentzero eta Mari Domingi, Korrika...**

### BAZKIDE IZAN NAHI DUT:

**Izen-abizenak:**  
**Helbidea:**  
**e-maila:**  
**Jaiotze-data:**  
**Kontu zenbakia (20 digito):**  
**Herria:**  
**Telefonoa:**  
**Lanbidea:**

Urte guztiko bazkidetza 25 euroren truke! Hilabetero *Berriketan* aldizkaria etxean jaso eta abantailak izango dituzu euskara elkarteak antolatzen dituen egitasmoetan!

Bazkide izateko, datuen orria bete eta ekarri Zuhatza Euskara Elkartearen bulegora (Ifar kalea 12, behea). Harremanetarako: [koordinatzailea@zuhatza.com](mailto:koordinatzailea@zuhatza.com) (943 19 13 83).



# EUSKARAK 365 EGUN

euskaltzeleon auzotik  
euskararen herrira



Euskararen Egunaren harira Kuadrillategiko gazteek antolatutako ekimena iruditan jaso nahi izan du *Berriketan*-ek. Erronka gainditu da, bai!! 365 selfie baino gehiago lortu ziren, eta horiekin mosaiko bat osatu zen Aldats pilotalekuan. Selfie horietako batzuk dituzue hemen ikusgai, baita Iñigo Izagirrek sortutako bi bertsoak ere. Zorionak antolatzaile, laguntzaile eta parte-hartzaile guzti-guztiei! EUSKARAK 365 EGUN!!

*Txakurrak eta umeak,  
Euskal entzule xumeak  
Eta elkarri erderaz gizon...  
Zein emakumeak!  
Bete asmoz hutsuneak,  
lekuak eta uneak,  
hedatu egin behar ditugu  
euskeraguneak.*


*Oinez, zaldian, motoan,  
Plaza erdian, txokoan,  
Negar malkotan, irribarretan,  
Jolasten, jokoan,  
Maitasun zein gorrotoan  
hartu euskera mokoan!  
Egin zaiogun omenaldia  
egunerokoan.*

*Doinua: Mendian gora haritza*



*Ekitaldiko argazkiak: Ander Salegi. Selfieak: Kuadrillategi, Gaztelekua, norbanakoak, lagun taldeak, elkarteak...*







## Itziarko Auzo Udala eratzearen alde agertu da iritzia ematera deituta zeuden biztanleen gehiengoa

Guztira 614 pertsonak eman zuten botoa, eta horietako %95,92k babestu dute proiektua

Itziarko Auzo Udalarri buruzko iritzi-bilketa azaroaren 30ean burutu zen. Arbiskoa, Arriola, Egia, Elorriaga, Endoia, Itxaspe, Lastur Behea, Lastur Goia, Mardari, Itziar auzoa eta Itziarko kaskoko biztanleak zeuden deituta iritzia ematera, eta auzotarren iritziak Itziarko eskolan jarritako kutxa batean bildu zituzten. Galdera bakarrari eman behar izan zioten erantzuna: "Debako Udaltzarak Itziarko Auzo Udala eratzea onartu du. Ados zaude?". Baieztokak babes handia jaso zuen (%96 inguru), eta parte-hartzea %72koa izan zen.

Debako Udaltzarak onartua zuen jada Auzo Udala sortzeko txostena, eta hurrengo urratsa izan da Auzo Udalaren lurralde eremuko biztanleek akordio horri buruz duten iritzia jasotzea. Azaroaren 30ean lortutako emaitzekin proiektuarekiko adostasuna agertu dute bizilagunek. Eta, orain, Gipuzkoako Foru Aldundiak dekretuz onartu beharko du Auzo Udalaren sorrera.

Galdeketa berme guztiak izan zitzaizkion, iritzi-bilketarako mahaiaren kideak udal langileak izan ziren. Bestalde, begirale lanak burutzeko gonbitea beste hainbatek ere jaso zuen: alderdi politiko guztiek, herri plataformek (Gora Deba eta Denon Herria) eta Gipuzkoako Foru Aldundiak zein Gipuzkoako Batzar Nagusiek.

Martin Garitako Gipuzkoako ahaldu nagusia, esaterako, Itziarren izan zen galdeketa egunean. Herritarrak zoriondu zituen haien aldarrikapena "modu demokratikoan" bideratzen ari direlako; baita Debako Udala ere, "normaltasunez ahalbidetu duelako itziartarren aspaldiko eskaera bat". Garitano Arantza Ruiz de Larrinaga Herritarren Partaidetzarako foru zuzendariarekin batera izan zen Itziarren. Bertan adierazi zute-



nez, Aldundiak iritzi-bilketaren emaitza errespetatzeko konpromisoa du, eta eman beharreko pausoak emango ditu. "Itziarren ikusten ari garen ariketa demokratiko hau eredu garria da. Igeldon ere egin zen galdeketa bat, gaurkoaren -azaroaren 30ean Itziarren egindakoaren- antzera. Igeldotarrak oso garbi adierazi zuten haien nahia, baina, zoritxarrez, Donostiako Udaleko oposizioak ez zuen erakutsi Debako Udalak erakutsi duen jarrera demokratiko bera", nabarmendu zuen Garitanok.

## Debako pasabidea zabaldu da

Oinezkoentzako pasabide berria eraiki da Deba eta Itziar artean N-634 errepidearen gainean. Pasabide hau irekita, GR-121 Talaiak ibilbideak zeukan azken puntu beltza konponduta geratu da, Gipuzkoako Foru Aldundiak jakinarazi duenez.

Duela 8 urte hasi zen Foru Aldundia Gipuzkoako ibilbide sarea berrantolatzen, helburu bikoitz batekin: batetik, lurraldea oinezkoentzat bideen bitartez saretzea eta, bestetik, Gipuzkoako babestutako gunek (parke naturalak, biotopoak...) elkarren artean lotzea. Ibilbide horietako bat Gipuzkoako GR-121 da, lurraldeari itzulita egiten diona. Bide honen baitan, Talaiak ibilbi-



dea da ezagunena, Gipuzkoako itsasbaterretik doana, Hondarribian hasi eta Mutrikuko Saturraran hondartzaraino: 77 km eta 3.500 m positibo.

Azken puntu beltza Deba eta Itziar arteko N-634 errepideko 42. kilometroan zegoen, Zumaia-Deba etapari dagokiona. Berriki inauguratu den pasabide berri honi esker, oinezkoak seguruago ibiliko dira eta Debako herriguneraino iristea errazagoa izango da. Foru Aldundiak aipatu du hileror, gutxi gorabehera, 3.000 lagunek egiten dutela ibilbide hau.

Pasabidea egiteko bertako pinu tratua erabili da eta lanek 165.509,61 euroko kostua izan dute.

Seven Clovers  
Irish pub

Gozatu gure garagardoa

Hondartza, 11 • 20820 DEBA • Tel. 943 191 295



Bar LOREA

"Orotariko tartak etxean eginak"

Angulero kalea • 20820 DEBA • Tlfnoa.: 943 191 095



BERRIKETAN GAZTEA

2014ko abendua  
Mendata BHI-ko Prentsa Tailerrean Sortua.

## “Gu ta gutarrak” Euskal Telebistako programa berria

Gutxi gorabehera, orain dela bi hilabete estreinatu zen “Gu ta gutarrak” izeneko Euskal Telebistako programa berria. Julen Telleriaren eskutik, saioak Euskal Herriko koadrila jatorrena sortzea izango du helburu nagusi. Astelehenetik ostegunera bitartean izaten da ikusgai, 21:00etan, ETB1en.

Gazte talde hau sortzeko, sei neska eta sei mutil aterpetxe

batera bidali dituzte, hainbat asteburutan elkarrekin bizitzera. Astelehenetik ostegunera bitartean, berriz, hamabiak platoan izaten dira aterpetxean gertatzen den guztiaren berri ematen. Une dibertigarriei eta sortutako ika-mikei buruz ere hitz egiten dute eta, jakina, neska-mutilen arteko harremanen nondik norakoak ere aztertzen dituzte eguneroko saioetan.

Horrez gain, Euskal Herriko gazteek dituzten kezken inguruan ere arituko dira, eta gaur egun kalean, gazteen artean, nagusi diren gaiak jorratuko dituzte. Gazteek parte hartu arren, adin guztietako ikus-entzuleentzako saioa da hau.

Laguntzaile bereziak ere izango dituzte protagonistek: saioko Kuxkuxeroak. Koadrilako kideen alde edo kontra egitea izango da horien betebeharra.

Parte-hartzaileek erronka ugari gainditu beharko dituzte, bai aterpetxeko elkarbizitzan eta baita platoan ere.

Julen Telleria Gaztea Irratiko “Akabo Bakea” saioko esatari tolosarrak dio “ilusioz eta gogotsu” dabilela aurkezle lanetan.

Koadrilako kideak honako hauek dira: Leire, 27 urte (Iruñea); Egoitz Txurruka “Txurru”, 23 urte (Mallabia); Aitor, 19 urte (Billabona); Enara, 18 urte (Legorreta); Argoitz, 33 urte (Andoain); Olatz, 29 urte (Ibarra); Oier, 26 urte (Sopela); Irantzu, 18 urte (Getaria); Iker, 27 urte (Gernika-Lumo); Naomi, 19 urte (Gasteiz); Alain, 19 urte (Bermeo); Janire, 24 urte (Bilbo).







# ELKA RRIZ KETA



**BELDUR BARIK,  
“EGIN DEZAGUN  
MORE”**

Beldur Barik lehiaketara aurkeztutako “Egin dezagun more” izenburuko lanaren egileak elkarriketatu ditugu oraingo honetan. Amaia Arozena, Enara Cendoya, Itzale Laka, Dorleta Aizpurua, Malen Oiartzabal, Irati Aznal, Julia Ron, Ainhoa Agirregomezkorta, Lide Laka eta Ane Arrizabalaga dira bideoaren sortzaileak. Epaimahaiaren erabakia ezagutu baino lehen burutu genuen elkarriketa, eta gerora jakin genuen herri mailako lehenengo saria lortu zutela lehian. Zorionak, beraz, talde osoari!!

**Nola bururatu zitzaizuen Beldur Barik lehiaketarako bideoa egitea? Eta zergatik “Egin dezagun more” izenburua?**

Kuadrillategin bidaia bat egin nahi dugulako animatu ginen eta, gainera, emakumeen berdintasunaren alde gaudelako erabaki genuen parte hartzea. Izenburuari dagokionean, mutilak adierazteko kolore urdina erabiltzen da eta emakumeak adierazteko, berriz, arrosa. Hauek nahastean, morea sortzen da.

**Zenbaten artean egin zenuten lan hau?**

Hamar laguneren artean egin genuen eta Gaztelekuko hezitzaileen laguntza ere izan genuen.

**Zein da bideoaren ideia edo mamia?**

Telebistak gure bizitzan duen eragina aztertu dugu,

emakume eta gizonen arteko desberdintasunekin, eta publizitateak sexismoaren inguruan eta gehienbat gudan duen eragina ere islatu nahi izan dugu.

**Zergatik aukeratu zenuten gai hori?**

Telebistak emakume eta gizonen artean nabarmentzen dituen desberdintasunak aldatu nahi genituen.

**Zailtasunik izan al zenuten bideoa egiteko prozesuan?**

Bai, iragarkiak eta umeak aukeratzeko orduan. Izan ere, oso zaila egin zitzaigun adibide egokienak aurkitu eta azaltzea.

**Irabazteko aukera duzuela uste duzue?**

Deba mailan aukerak dauzkagula uste dugu, baina bestela ez.



# BADATUZ GABONAK

Hilabete honetan gabonen inguruan aritu gara ikasleekin. Hona hemen egin dizkiegun galderak eta jasotako erantzunak:

- 1.- Gustuko al dituzu gabonak?
- 2.- Oparirik eskatu al duzu? Zer?
- 3.- Non ospatzen dituzu gabonak?
- 4.- Norekin egongo zara?
- 5.- Gustuko al duzu familiarekin egotea?
- 6.- Ba al duzu urte berria hasteko gogorik? Zergatik?



## INKESTA



### Miren Txibite:

- 1.- Bai, familia eta lagunekin egoteko.
- 2.- Oraindik ez.
- 3.- Zumaian, amonaren etxean.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.



### Olatz Matias:

- 1.- Bai, oso gustuko.
- 2.- Bai, liburu bat.
- 3.- Etxean.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, besterik gabe.



### Luken Urkiri:

- 1.- Bai.
- 2.- Ez.
- 3.- Etxean.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai.



### Lara Egaña:

- 1.- Bai.
- 2.- Ez, oraindik ez.
- 3.- Hemen, Deban, amonaren etxean.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, besterik gabe.



### Oihan Bores:

- 1.- Bai.
- 2.- Ez, oraindik ez.
- 3.- Etxean.
- 4.- Familiarekin eta lagunekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez, beldur naizelako mundua amaituko ote den.



### Itsaso Iciar:

- 1.- Bai.
- 2.- Ez, oraindik ez dakit.
- 3.- Etxean.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai. Urte berria, aukera berria.



### Leire Amesti:


- 1.- Bai, familiarekin egoteko denbora dudalako.
- 2.- Bai, dirua eta argazki kamera bat.
- 3.- Etxean.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Ez, astebetara eskolan hasten garelako.



### Paola Iñurrieta:


- 1.- Bai.
- 2.- Bai, dirua eta arropa.
- 3.- Elgoibarren eta Soroluzen.
- 4.- Familiarekin.
- 5.- Bai.
- 6.- Bai, gauza berriak bizitzeko.





# DenBord-pasaak

## LABIRINTOA



## SUDOKUA

8			4	6			7
						4	
	1					6	5
5		9		3		7	8
				7			
	4	8		2		1	3
	5	2					9
		1					
3			9	2			5

## TXISTEA

Jaimitok kakagurea zeukan eta bide ertzean kaka egiten hasi zen.  
 Kamioi bat pasatu zen eta korneta jo zion, pi-pi!!!!  
 Jaimitok esan zion:  
 "Zuk pi-pi!! Baina nik ka-ka!"



### LAGUNTZAILEAK:



### BABESLEAK:



Debako Udala



### PRENTSA TALDEA 2014-2015

- |                   |                    |
|-------------------|--------------------|
| Maite Iglesias    | Itsaso Iciar       |
| Leire Amesti      | Naia Agirregabiria |
| Maialen Beristain | Paola Iñurrieta    |
| Sara Goikoetxea   | Olatz Irueta       |
| Janire Salegi     | Aiora Zubizaray    |

Koordinatzailea: Joseba Agirreoa



## Arakistain eta Eskudero, garaile aurten ere Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketan

Azaroaren 30ean Zaldibarren jokatu zen Euskal Herriko Trikitilari Gazteen Txapelketaren 23. edizioa, eta Josune Arakistain lasturtarrak (trikitia) eta Alaitz Eskudero debarrak (panderoa) osatutako bikoteak lortu zuen garaipena, iaz egin zuten bezalaxe.

Txapelketaren finalak zortzi bikote bildu zituen guztira –iaz baino bi gehiago–, eta gipuzkoarrak izan dira guztiak. Bikote bakoitzak lau pieza eskaini behar izan zituen epaimahaiaren aurrean: “Bizkaiko Trikitixa”, “Porrusalda”, “Garasolo fandangoa” (Jose Mari Iriondok egina) eta “Arinarina”. Eta guztien lana kontuan hartuta, lehenengo saria Arakistaini eta Eskuderoi ematea erabaki zuten epaileek (140,2 puntu eskainita). Horrez gain, “Bizkaiko Trikitixa” pieza ondoen jo izanagatik ere gailendu ziren lehiaketan, eta Josune Arakistain izan zen onena “Garasolo fandangoa” pieza eskaintzen ere. Lortutako emaitzekin pozarren, txapela eta oroigarri ugari ekarri zituzten etxera bueltan.

Saria eskuratzean, Josune Arakistainek bertso bat bota zuen, bidelagun izandako irakasleei esker ona erakutsiz. Alaitz Eskudero, berriz, Maitane bere lehengusinari eskaini zion garaipena, trikitiaren munduan sartzerantz animatu izanagatik.

Zaldibarren jokaturako txapelketaren finalean, Arakistain eta Eskudero ez ezik, Itziaroko beste gazte bat ere aritu zen lehian. Alegia, Aizarnazabalgo Jugatz Oleagarekin bikotea osatuz, Itziaroko Naiara Mantzizidorrek ere parte hartu zuen txapelketan. Saillapen orokorrean hirugarren postuan gelditu zen bikotea. Zorionak guztie!!



## “Aitaren eskutik, egurraren orpotik”, Juanma Oartzabalen erakusketa

“Aitaren eskutik, egurraren orpotik” izenburupean, hogeita hamar bat artelanekin osatutako erakusketa izan da ikusgai Agirre jauregian, abenduaren 5etik 14ra bitartean. Bertan, Juanma Oartzabal “Txalintxo”k egurrezko eskulturak aurkeztu ditu.

Itsasoak ekarritako egurrekin edota naturak emandakoeekin egiten du lan, gehienetan, Txalintxok (zumardian moztutako platanondoekin, baserrietako habe zaharrek...); eta egurrak naturalki dakarren forma oinarri hartuz, edo hark iradokitzen dionaren arabera, ontzen ditu bere eskulturak. Duela hogeita bat urte, aitarekin abiatu zuen egurra lantzeko zaletasuna; gerora eten bat egin zuen ibilbide horretan, baina gaur egun berriro ere ekin dio afizio artistiko honi. Erakusketa bat antolatzen duen lehenbiziko aldia izan da.



**urlo**  
SERVICIOS INMOBILIARIOS  
HIGIEZINEN ZERBITZUAK

**API**  
Nº 379

Higiezinaren Zerbitzuak  
Aholkularitza  
Higiezinaren Agentzia  
Komunitateen administrazioa  
Tasazioak/ Balioztaketak

Sokagin, 2 bajo  
Apartado 3  
20820 DEBA

Tel.: 943 192 471  
Tel./Fax: 943 192 303  
urlo@urlosi.net

**MAXI BAR**

Lersundi, 28  
Tel.: 943 191 206  
Deba (Gipuzkoa)



## Aldarrikapen ozena azaroaren 25aren bueltan

Emakumeenganako Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Egunaren harira ekimen ezberdinak burutu dira aurten ere, Debako Udaleko Berdintasun Sailak antolatuta.

Azaroaren 25ean, adibidez, urteroko elkarretaratzea egin zen Foruen plazan, "Emakumeenganako indarkeriarik ez!" lelopean. "Dantza Mugimendu Terapian" oinarritutako tailerra eta "Emozioetatik geure barne-indarra berreskuratzen" izenburupean burututako solasaldi bat ere burutu dira aurtengo egitarauaren baitan.

Bestetik, aurten ere Beldur Barik lehiaketara hainbat lan aurkeztu dituzte Debako gazteek. Horien artean, Gaztelekuko kideen "Egin dezagun more" bideoak herri mailako lehenengo saria lortu du (ikus aldizkariko 12. orrialdea). Bigarren postuan gelditu da "Polita izateko" lana -Izaro Altzibar eta Miren Aizpurua-, eta hirugarren saria "Bizitzaren tren"-k lortu du -Julen Gorriti eta Jon Amutxastegi-. Sari banaketa azaroaren 27an egin zen. Lanak [www.beldurbarik.org](http://www.beldurbarik.org) atarian ikus daitezke.



Ander Salegi



Ander Salegi

## Sonia Fernándezek eta Ane Bastidak irabazi dute emakumeen pala txapelketa

Aldats pilotalekuak azaroaren 30ean hartu zuen emakumeen pala txapelketaren finala eta Sonia Fernándezek eta Ane Bastidak osatutako bikoteak lortu zuen garaipena, Itziar Albizuri eta Elena Agirrerri 22-14ko emaitzarekin irabazita.

Txapelketaren azken txanpara, finalerdietara, lau bikote iritsi ziren. Goian aipatutako biez gain, Idoia Arrillagak eta Luzi Etxabek osatutako bikotea eta Jone Loiolak eta Ainitze Agirrezabalak osatutakoa. Lehenengoak Itziar Albizu eta Elena Agirrerren aurka aritu ziren eta bigarrenak Sonia Fernández eta Ane Bastidaren kontra. Esan bezala, azken bi bikote horiek lortu zuten finalerdietatik finalerako pasea eta Fernández eta Bastida gailendu ziren azkenean, 22-14ko emaitzarekin.

Adin eta inguru desberdinetako bederatzi bikote aritu dira azken asteburuetan euren arteko norgehiagokan, aurreko bi edizioetan bezalatsu. Dena den, txapelketaren helburua ez da, soilik, norgehiagoka bera, antolatzaileek esan digutenez.



Palara neska gehiago erakartzea ere badu helburu; kirola eginenez, giro bat sortzea eta harremanak bideratzea. Jende kopurua handitu eta neska gehiago erakartzeko, beste urrats bat egin dute orain: pala ikastaroa antolatu, Euskal Jolasoko Mikel Lópezi esker; pilotarekin lotura handiegirik izan ez baina probatu nahi duenari hasteko aukera eskainiko zaio horrela; baita, orain artean jokatzen aritu arren, hobetu nahi duenari ere.



**SUKIA**

Fruitu eta Barazkiak

Lersundi, 13  
Tel.: 943 192 386  
Deba (Gipuzkoa)



**ASKETA, S.L.**

ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA

OFICINAS Y EXPOSICION:

Maxpe, 3-5 - 20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 191 952 - Faxa: 943 192 460  
E-mail: asketa@telefonica.net  
www.asketa.net

ALMACÉN:

Parque Empresarial Esser - Pabellón NN 8-9  
20850 MENDARO (Gipuzkoa)



San Roke Kalea 6, DEBA  
tel.: 943 02 99 63  
e-mail: hazirik@gmail.com

Jarri zure publizitatea Berriketari aldizkarian!

Zuhatzia

943 191 383  
berriketan@zuhatzia.com

**AUKERA INMOBILIARIA**

[www.aukera-inmobiliaria.com](http://www.aukera-inmobiliaria.com)  
Aukerarik onena!

943 12 13 95

API 447



## Abenduaren 26tik 30era bitartean ospatuko da Animadeba jaialdia



Helduentzako animaziozko zinea eta animazio esperimentalak bultzatzeko helburuarekin sortutako ekimena da Animadeba jaialdia, eta aurtengo abenduan VII. edizioa ospatuko da. "Gure lengoaia bisuala hezi eta zine

konbentzionaletik kanpo dauden filmak geureganatze" asmotan, ekimen ezberdinak antolatu dira egitarauaren baitan. Hitzordu gehienak Agirre jauregian burutuko dira.



Abenduaren 26an (ostirala) abiatuko da Animadeba, **Juanba Berasategi**ren hitzaldiarekin. 18:00etan emango zaio hasiera, Agirre jauregian. Diseinu eta Marrazketa ikasketak burutu zituen Berasategik, eta Euskal Herriko animaziozko zinemaren aitzindari bezala ezagutzen dugu. Zuzendari lanetan ez ezik, ekoizle gisa ere hainbat produktzioetan hartu du parte azken urteotan. Besteak beste,

Nazioarteko Animaziozko Filmaren Elkartearen sortzaile eta lehendakaria izan da, baita Eskubideen Kudeaketarako Erakundearen (E.G.E.D.A.) sortzaileetako bat ere.

Berasategiaren hitzaldiaren ostean, 19:00etan, "**Ekialdeko izarra**" (Juanba Berasategi, 1977) film laburra eskainiko da. Ondoren, film luze bat egongo da ikusgai: "**El viento se levanta**" (Hayao Miyazaki).

Abenduaren 27an (larunbata) haurrentzako pelikula bat ikusteko aukera egongo da, 17:00etan: "**Tormesko itxu-mutila**" (Juanba Berasategi). Eta 19:00etan magia emanaldia burutuko da, Agirre jauregian bertan.

Igandean, abenduaren 28an, bi hitzordu izango dira aukeran, biak ala biak Agirre jauregian. Umeei zuzendutako

pelikula bat eskainiko da 17:00etan: "**Ernest & Celestine**" (Stéphane Aubier, Benjamin Renner, Vincent Patar). Bi ordu beranduago, 19:00etan, **Rotoskopia** tailerraren emanaldia egingo dute.



"**Futbolin**" (Juan José Campanella) luzemetraia izango da abenduaren 29ko lehen hitzordua, Agirre Jauregian. Baina gauean plaza zaharrera eramango dute Animadebaren egitaraua. **Doctor Deseok** kontzertua eskainiko du, 22:30ean. Aitor Oñederra sortzaile debarrak taldearekin eginiko azken bi kontzertuetan erabilitako proiektzioen moldaketak eta lan berriak ikusteko aukera izango da bertan.

Aurtengo jaialdiari abenduaren 30ean emango zaio amaiera. 19:00etan, Agirre jauregian, "**Kimuak & Nontzefilmak**" laburmetraiak eskainiko dira, gortina lehiaketa eta horri dagokion sari banaketa ekitaldiari ekin aurretik. Gauean, 22:00etan, Gaztetxean eskainiko den "**Hair High**" luzemetraiarekin agurtuko du Animadebak 2014ko egitaraua.



Animazioaren mundua herritarrei hurbiltzeko helburua duen jaialdiaren nondik norakoak [www.animadeba.com](http://www.animadeba.com) atarian kontsulta daitezke.

**URDAITEGIA  
AITTOLA  
HARATEGIA**

Astillero, 3  
Tlfnoa.: 943 191 776  
20820 DEBA

**LENTZERIA**

**Azoka**

**MERTZERIA**

Itur kalea, 9 • Tlfnoa.: 943 192 722 • DEBA


**kutxa** **k** kutxabank

**RAIKETAK S.L.**  
**SAGARMIÑA**

Hondartza, 3-4 behea - Apartado, 31  
20820 DEBA (Gipuzkoa)  
Tel/Fax: 943 192 249  
Mugikorrek: 629 639 685 / 629 641 940  
sagarmina@sagarmina.com  
www.sagarmina.com

**haizea**  
estetika

Tlf. 943 029 607  
Iturkale 22. 1 eskubia  
sarrera Zesterokua plazatik



## Agenda

## Abenduak 24, asteazkena

-12:30. **Olentzero eta Mari Domingiri ongiatorria**, plaza zaharrean. Ondoren, salda eta ogitarako postua Foruen plazan.  
-17:00. **Presoen aldeko Olentzero**. Plaza zaharretik irtengo da.

## Abenduak 26, ostirala

-**Kolore Anitz Eguna**. Goizean, haur eta gurasoentzako Oka jolasa. Iluntzean, bertso-poteo musikatua Debako bertsolari gazteekin. Zuhatza elkarteko Kolore Anitz Aisialdi Taldeak antolatutako ekimena.  
-19:30. **Azken ostirala**. Euskal preso eta iheslari politikoen eskubideen aldeko elkarretaratze berezia. Foruen plazan.

## Abenduak 26-30

-**Debako VII. Animazio Zinemaldia**. Animadeba 2014. Informazio gehiago ale honetako 17. orrialdean.

## Abenduak 27, larunbata

-12:00. **Jaiotza biziduna**, Elizan.

## Abenduak 29, astelehena

-22:30. **Doctor Deseoren** kontzertua, plaza zaharrean.

## Abenduak 31, asteazkena

-**Itziarren kantuz kantu** Olentzero. (Irteera: 8:30ean, Gudarien plazatik).  
-11:00-13:00. **VI. San Silbestrea**, lasterketa herrikoia. Foruen plazan.  
-13:00. **Debako Musika Bandaren** kontzertua, elizan.  
-19:30. **Presoen aldeko elkarretaratzea eta brindisa**, plazan.

## Urtarrilaren 1etik 7ra

-**Urteberriko Idi-Probak**, Euskal Jolasen.

## Urtarrilak 2, ostirala

-**Gabonetako haur parkea**, Aldats pilotalekuan (11:30-13:30 eta 16:30-19:30). Tailerrak, puzgarriak, bideo eta sare-jokoak...

## Urtarrilak 3, larunbata

-**Zoro Feria**. Egun osoko egitarau berezia antolatuko da (fruta eta barazki azoka, ganadu feria, dantzak, kalejirak...).

## Urtarrilak 4, igandea

-12:00. **Urrezko Aizkora**, Aldats pilotalekuan.  
-17:00. **Ipuin kontaketa**. Urte berri, ipuin berri -17:00 (HH), 17:45 (LH 1-3), 18:30 (LH 4-6)-. Agirre jauregiko ispiluen gelan.  
-19:00. **Bizar Zuri**, Gurutze ermitan.

## Urtarrilak 5, astelehena

-19:00. **Errege kabalgata**, herriko kaleetan zehar.

## Urtarrilak 11, igandea

-8:30. **Mendi irteera**: Aralar aldera. Burdin Kurutz eta Luzarok antolatutako txangoa.

## Urtarrilak 20, asteartea

-**San Sebastian deunaren jaiak** Elorriagan.

## Erakusketa

-**Haitz Haundi elkarteak antolatutako pintura erakusketa**, udaletxean. Abenduaren 17tik urtarrilaren 2ra bitartean egongo da ikusgai: 18:00etatik 20:00etara lagunetan eta eguerdiko 12:00etatik 14:00etara jaiegunetan.

## Gaztelekuko ekimen bereziak

-Urtero bezala, gabonetako egitarau berezia antolatu du Debako Gaztelekuak, gazteekin elkarlanean. Diskoteka, irteerak, gazte senegalдар baten bizipenen inguruko solasaldia, DebaCup Futbol Txapelketa, bingo... eta askoz gehiago!  
Animatu eta parte hartu!

## VI. San Silbestrea

-Abenduaren 31n VI. San Silbestrea ospatuko da. Lasterketa herrikoia Deba-Itziar Xtreme Triatloi taldeak antolatzen du, Udalaren laguntzarekin, eta izena emateko epea abenduaren 30ean amaitzen da (Turismo Bulegoan). Urteko azken egunean, hiru lasterketa mota egingo dira; horietako bi etxeko txiki eta gaztetxoentzako eta



hirugarrena nagusientzako (5,3 km-koa). Haurren lasterketak 11:15ean plazan hasiko dira eta helduena, berriz, 12:00etan.

## Debalai elkartearen zozketa

-Debalaik gabonetako zozketa berezia antolatu du. Elkarteko taberna edo dendetan erosketak eginez gero, otarra handi bat eta 300 euroko balioa izango duen erosketa-txekea irabaz daitezke -elkarteko edozein establezimendutan gastatzeko-. Abenduaren 22ko Loteria Nazionaleko zozketan sari nagusiaren azken 4 zenbakiekin bat datorrena izango da irabazlea.



## Gabonetako ordutegi berezia liburutegian

Ostolaza Udal Liburutegiak ordutegi berezia izango du gabonetan. Abenduaren 22, 23, 29 eta 30ean, eta urtarrilaren 5ean honako ordutegia izango

du: liburutegi orokorra 9:00etatik 14:00etara eta haur liburutegia, berriz, 10:00etatik 13:00ak arte. Abenduaren 24an eta 31n 13:00etan itxiko ditu atea.

## ZAINTZAKO BOTIKA

Egunez, 09:00etatik 22:00etara

Zalduegi: **abenduak 22, 23, 24, 25.**

Burgoa Zuazo: **abenduak 26, 27, 28.**

22:00etatik 09:00etara, Eibarren Azkue botika zabalik. Toribio Etxebarria, 4 (943 20 23 44)

## DEBAKO BOTIKAK

ZALDUEGI: 669 262 201

BURGOA ZUAZO: 667 338 890

Larunbat goizetan beti bat irekita:

ZALDUEGI: abenduak 20

BURGOA ZUAZO: abenduak 27

9:30 - 13:30



# BADATZ OLENTZERO ETA MARI DOMINGI

## Eguberri on!!

Abenduak 24, asteazkena  
12:30ean ongietorria plaza zaharrean.

Ondoren, salda eta ogitarteko  
postua Foruen Plazan.



## DEBABE UDAL EUSKALTEGIEN MANKOMUNITATEA

*Euskararentzat bidea ez da  
erraza eta leuna;  
hala eta guztiz ere, argituko da  
noizbait bere etorkizuna.  
Hizkuntza dugu herriak duen  
benetako ondasuna;  
Urte Berriak dakarkiola  
geureari osasuna.*

*Eguberri zoriontsua  
eta urte berri on!*



DEBABE UDAL EUSKALTEGIA  
Ifar kalea, 12 - Telf: 943 19 22 36  
[debabe.deba@telefonica.net](mailto:debabe.deba@telefonica.net)





# LANTALDE PROFESIONAL BIKAINA IZEN-ABIZENEKIN



**ZERBITZU INTEGRAL AKREDITATUA**

**ETENGABERO ORDUTEGIA**



**Astelehenetik ostiralera:**  
**8:00etatik 22:00etara**  
**Zapatuetan:**  
**10:00etatik 14:00 etara**

**Doctor Antonio Murillo**

Hezur Birsorkuntza eta ehun bigunen Maneiuko Zuzendaria. **Lleidako Unibertsitatea eta Madril.** **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Periodontzia Koordinatzailea, Odontologian Lizentziatua. **Alfonso X.a Unibertsitatea. Madril.** Implantologia Masterreko Irakaslea. **Lleidako Unibertsitatea.** Kirurgia Masterreko Irakaslea. **Salamanca Unibertsitatea.** Unibertsitate Instituzioetako Irakasle gonbidatua. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean eta Bartzelona, Sevilla, Almería, Lleida, Leon, Malaga... Unibertsitateetan.**

**Doctora Ainhoa Zulueta**

Odontologian Lizentziatua. **Euskal Herriko Unibertsitatea.** Unibertsitate Aditua Aho Kirurgian, Periodontzian, Implantologian. **Leongo Unibertsitatea.** Diplomaturia Aho Kirurgian. **Bartzelonako Unibertsitatea.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Madrilgo Unibertsitate Konplutentsean.** Hartz-Estetikan Diplomaturia. **Autran Institutoa, Bartzelona.** Etengabeko Formakuntza. **New York-eko Unibertsitatea.** Oklusioan Graduondoa. **Anibal Alonso Doktorea.**

**Eibarko Dendarien Elkarte**  
ABANTAILA HANDIAK ELKARTEAREN TXARTELAREKIN ORDAINDUZ  
**Galdetuizuzul**



**MUTUAK ETA ASEGURUAK**

GLOBAL CARD, OCASO, EMESA PREVENCIÓN, CARREFOUR LIFE, AZKARAN, FRATERNIDAD, IMQ, SANTA LUCÍA, PREVISORA BILBAINA, AEGONSTONEBRIDGE, AVANTSALUD, PADI...  
**Galdetuizuzul!**



**IRAZABAL**  
clínica dental

**FINANTZIAZIO BEREZIA** Abantaila ekonomiko handiak eta finantziazio aukera ezinhobeak. **GALDETU**  
Julián Etxeberria, Nº 12 - 1º - 20600 EIBAR - Tel.: 943 20 85 52 - [www.clinicairazabal.com](http://www.clinicairazabal.com)